


**ESPAINIAKO BANKUA**  
C MAILA

**GARIBAI 26**



**Egilea eta data: Jose de Goicoa, 1881**

### Deskribapena

Zabalduraren bigarren fasean, 1881ean, eraikitako izkinako eraikina. Goicoak proiektatu zuen, nolabaiteko estilo neoklasiko neurridunean. Behe oina eta bi goi oin ditu. Hirugarren oina ondorengo fase batean jasotako erremateko atikoa da. Kareharriz egindako basamentuaren dimentsioetan eta hareharriz egindako goialdeko gorputzaren zutabe-ordena bikoitzean, fatxadaren eskala monumentalak nabarmentzen da.

### Babes erregimena

1.- Babes erregimen orokorra:

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako bakoaren konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko babes erregimena:

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: bigarren oinetik abiatutako jasodurak, arotzeria eta pertsianak.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: behe oineko, lehen oineko eta bigarren oineko harlandua.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.

D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.